

Aretxagazeta


ETA GAINERA...

Ze barri?

SAN PEDROAK 04



Uadrilen giroek
jerri dabilen
erri txiki horitan
laxetan gaztea



BATUKADA

HERRIKO GAZTEEN ERRITMORA

GUARDIAKOFARMAZIA

ZAPATUA, 26
FRAILE, J. Herriko Plaza 10. 943 79 21 99

DOMEKA, 27
FRAILE, J. Herriko Plaza 10. 943 79 21 99

TELEFONO JAKINGARRIAK

OROKORRAK

Almen	943 71 49 07
ARETXAGAZETA	943 79 86 21
Faxa	943 77 18 54
Basotxo	943 77 09 81
Euskaltegia	943 79 21 68
Gizarte laguntzailea	943 71 18 62
Hezibide elkarte	934 79 31 32
Industrialdea	943 79 62 80
Institutua	943 79 79 00
Kirol etxea	943 71 26 28
Kultura etxea	943 71 10 27
Kurtzebarri Eskola	943 79 00 49
Kurtzebarri BHI	943 79 57 40
KZGunea	943 79 94 44
Liburutegia	943 71 18 62
Loramendi EE	943 77 09 70
Ludoteka	943 79 05 81
Mankomunitatea	943 79 30 90
Murruxiko ME	943 79 93 74
Musika Eskola	943 79 36 50
Osasun etxea	943 71 19 59
Otalora	943 71 24 06
Parrokia (bulegoa)	943 79 18 42
Pausoka Haur Eskola	943 77 03 77
Postetxea	943 79 28 31
Santa Rita Ikastetxea	943 79 17 00
Taxi geltokia	943 77 12 64
Udal Bulegoak	943 71 18 62
Udaltzaingoa	943 71 18 63
Urats Gain	943 79 99 11

UDALTAINGOA
Arrasate

LARRIALDIK
SOS Delak

MEZAK

ANDRA MARIAREN ZERURATZE PARROKIA
Domeketan: 11:30
Zapatuetan: 19:30
Lanegunetan hiletak: 19:00

SANTA RITA
Domeketan: 09:00
Lanegunetan: 19:00

BASERRI AUZOETAN: AREANTZA
Domekan 11:30ean.

MENDIOLA
Domekan 12:00etan, otoitzaldia.

GALARTZA
Domekan 12:30ean.

OHARRAK

ANDRAMAIXETAKO KARTEL LEHIAKETA
Andramaixak iragartzeko erabiliko den kartela aukuratzeko lehiaketa antolatu du Kultura Sailak. Ekainaren 29a, martitzena, baino lehen eraman behar dira kartelak udaletxera edo kultura etxera.

Saria 300 euro da, eta uztailaren 7an emango diote irabazleari.

ARGIA DANTZA TALDEAREN IKUSKIZUNA

Argia dantza taldeak *Pas de Basque* ikuskizuna eskainiko du uztailaren 3an, zapatua, kirol etxean. Juan Antonio Urbeltzek zuzentzen duen taldean 40 dantzarik eta hamar musikarik hartzen dute parte. Euskal dantza tradizionalak erakutsiko dituzte, baina erabat gaurkotuta: Desafioa, Patuaren dantzak, Nafarroako hainbat dantza, Zinta dantza eta Aratusteetako dantzak.

1934AN JAIOTAKOEN BAZKARIA

Kinto bazkaria egingo dute bihar, zapatua, Taberna Berri jatetxean, 1934an jaiotako aretxabalarrek. Meza izango dute lehenengo eta gero bazkaria. 10 urtean behin egiten dute bazkaria; hortaz, aukera polita izango dute kontu zaharrak gogora ekartzeko.


LORAMENDIREN AGENDA

TXALAPARTA IKASTAROA UZTAILERAKO
Txalaparta ikastaroa antolatu du Loramendi EEEK datorren hilerako. Uztaileko bost egunetan emango dituzte eskolak inguruko auzoetara joanda; 19:00etan izango dira. Izena emateko Loramendi EEEK lokaletik pasatu behar dira interesatuak eta hamar euro ordaindu; ikasle eta langabeek, oster, sei euro.

ORAIN DELA 7 URTE ARETXABALETAN

Berritutako komunak zabaldu zituzten

Orain dela 7 urte, ekainaren 26an hain zuzen, zabaldu zituzten berritutako komun publikoak. Ohiko komunez gain dutxak eta ezinduendako egokitutako komuna ere jarri zituzten. Udaltzainek hartu zuten zabaltzeko ardura, egunero 09:00etan, eta Garbitu enpresakoek 22:00etan itxetako.



BERTAKO BERBAK/ Juan Martin Elexpuru

“San Juan-su”

San Juan bezpera gauean egiten den sua.
— *Urtero eitten die gurian san juan suak.*



GORKA ORTEGA

LIBURUTEGIKOTXOKOA

Oporretarako liburuak

0 urtetik aurrerako umeendako liburuak

- 'Pulguita' / E. Battut
- 'Erraldoia eta txoriak' / G. Biondi
- 'Todos los besos' / S. Bisinski
- 'Todo un mundo' / K. Couprie
- 'Hondartzako gazteluaren ipuina' / A. Garcia
- 'Txio eta Mu' / M. Hof
- 'Ane beldur denean' / H. Janish
- 'Afrika eta koloreak' / A. Obiols
- 'La Gran Mama hace el mundo' / P. Root

- 'Hombre de color!' / J. Ruillier
- 'Hamar txerrikume' / L. Timmers
- 'Dos ranas' / C. Wormell

6 urtetik aurrerako umeendako liburuak

- 'Ni ez naiz txerria' / P. Añorga
- 'Zeta elefantea' / R. Bisseuil
- 'Tunela' / A. Browne
- 'Albertok kaka egin du' / D. Casanave
- 'Euria' / D. Nesquens
- 'África, pequeño Chaca...' / M. Sellier
- 'Komun barruan' / M. D. Smet
- 'Animalia harrigarriak' / A. Serres
- 'Un día un perro' / G. Vincent

JOSEBA LÓPEZ DE ARMENTIA

Adi!

Zorionak!

EKAINAREN 7tik AURRERA
Zorion agurrak
ASTELEHENEKO
GOIENKARIAN!

Goienkaria
astelenean, aste bukaera osoa

Gainera...

Zorion agurrak, SMS bidez!

Senitarteko, lagun, ezagun edo gustuko duzun neska/mutila bere urtebetetzean zoriondu nahi baduzu, Asteleheneko Goienkaria-k beste aukera bat emango dizu: SMSa bidaltzea.

Ondo ibili San Pedrotan!



Sukaldeko tresneria • Lapiko Lasterrak • Zartagin eta paella-ontzi

Aingeru ibiltokia 3 / Tel.: 943 71 41 31 / Eskoriatza 20540


ATREBENTZIAEZPADA/ Aretxabaletan kanpoko igerilekuek falta egiten duskule uste dozu?



MARI CARMEN DE DIEGO
Langillie



ANDONI MIGUEL
Langillie



AMAIA LAZKANO
Langillie



TXOMIN GALDOS
Langillie



LORENA ALVAREZ
Iksalrie



IÑIGO TROJAOLA
Langillie

Bai, udarako biher dogule uste dot. Neuk igerileku bi jarriko neuke: txiki bat umiendako, eta beste bat nagusixondako. Kirol etxe pareko zelaixe egokixe ikusten dot horretarako.

Umiendako ondo egongo litzake, baiñe beste premiña batzuk dauzela uste dot. Igerilekue urte danerako zulue izengo da, eta iguel hobeto urte guztixen erabillerie izengo dauen zerbaitegittie.

Neuk, umiek dauketelako edo, faltan igerten dot. Kostaldie, gainera, aparte xamar geraketan jaku eta udarako gustora hartuko neuke. Beste herri batzuetan badauz.

Lurre badaukogule uste dot herrixen, eta umiendako batez be falta egitten daue. Errioxa aldien edozein herri kaxkarrek dauko, eta Aretxabaletak be merezi dauela pentsetan jat.

Bai, daukogun barrukue ondo dau, baiñe udarako kanpokue be ondo legoke. Umiendako eta nagusixendako jarriko neuke, eta kirol etxe aurrien lekue dauela pentsetan dot.

Faltan igerrri... ez neuke esango; hara eta hona ibiltten nazelako ez naz askorik egoten herrixen. Hori bai, bertan eukiz gero illunkaretan txapuzoi bat gus-tora hartuko neuke.

TXALOAK ETATXISTUAK



TXISTUAK ERREPIDEAN APARKATUTA Edozein tokitan aparkatzera ohitu gara, eta edozer gauzatarako: dirua ateratzeko kutxazainean, umea uzteko ikastolan edo kafe bat hartzeko errepide albo tabernan. Errepidean, baina, ezin da aparkatu inolako argibide barik; okerrago hiru autok ilaran egiten badute. Herrian, gainera, gero eta ohitura handiagoa hartu dugu horretarako. / M.A.

ETABARRUAN...

ASTEAN BEHIN / 04

Etxebizitza sozialak

Eguaztenean zozketatu zituen Javier Madrazok 19 etxebizitza sozial. Errentan emango dituzte.

ASTEAN BEHIN / 05

Gazteak batukadarekin

Batukada jo zuten herriko gazteek Euskararen Egunean. Orain, inguruko herrietatik deitu diete.

KIROLAK / 06

Debarroko finala

Bihar, zapatua, jokatu dute Errasti anaiek Debarroko Pilota. Txapelketako finala Eskoriatzan.

ASTEKODATUA

18

ETXEBIZITZA ZOZKETATU DITU EUSKO JAURLARITZAK

Eguaztenean egin zuen zozketa Madrazo sailburuak etxebizitza sozialak banatzeko. 20 egingo dituzte, baina bat Eusko Jaurlaritzak berak hartuko du, eta 18 banatu zituzten 24 izenen artean.

BESTEKEESANA

“Eleberri irakurterraz datzi nahi izan dut, trenean edo hondartzen irakurtzeko modukoa.

Estatu Batuetako best-sellerrak hartu ditut eredu.

Telebistan hain sarri ikusten den famatu izan behar hori salatzen du Zirkulua nobelak. Gaur egun, galdetzen diezu neska-mutikoei handitan zer izan nahi duten eta batzuek esango dizute famatuak izan nahi dutela. Nobelako hiltzaile horrek ere, nola edo hala famatu izan nahi duelako onartzen du enkargatzen dioten lan hori.

Haginkadaka nire lehenengo lana izan zen, eta, hain zuzen ere, horrelakoetan gura izaten duzu dakizun guztia erakutsi. Oso nobela pretentziosoa zen hura. Eta irakurtezina.

ANDONI URZELAI
‘El Diario Vasco’/04-06-18

HERRITARRENBERBAK/ Aitor Agiriano



6.000 auto egunean

Aurreko batean Maulanda auzoko bizilagun bat eta biok herrikeretan genbiltzala, etxe ondolik automobil asko pasatzen zitzaizkiola kexatu zitzaidan. Baina ez errua nirea zelako, hemen horri buruz idatzi behar nuela esateko baizik. Ahaztu gabe eta *sinfalta*, gainera. Marin auzora hartzen den bidegurutze hartakoa dugu lagun hau eta han, etxetik ere ezin daitekeela lasai irten zioen eta alkateak, Udalak... hartarako ardura duenak, zerbaitegin beharko zukeela gaineratzen zidan behin eta berriro. Protesta edo eskaerak zuzena dirudi; berak azpimarratu zuen moduan, ordaintzen ditugun zergen truke premia duguñean laguntzea dagokie eta.

Maulandako emakume honek dioskuna sinisteko ez dago bertakoa izan beharrik, batzuk besteak baino maiztasun baxuagoarekin bada ere, gutako asko eta asko pasatzen gara bide horretatik

eta ondo dakigu bidea ez dela aurrenekoa. Bihurgunez josita egoteaz aparte auto ugari elkartzen dira, bai gora eta bai behera. Sei mila bat automobil pasatzen omen dira egunean; sei mila. Esan gabe doa, automobil kopuru ikaragarri honi bidearen estutasuna eta abiadura handia gehitzen badiogu gauza onik ez dagoela. Ez du ematen, epe motzera behintzat, konponbide errazik duenik baina zer edo zer egin behar dela dudarik ez dago. Agian, posible da, martxan dagoen

autopistak, inguru horretako trafikoa arintzea. Ez dut esan gura autopista egitearen alde nagoenik; arazo honi ondorio positiboak ekar liezazkiekeela bakarrik. Zeren begien bistakoa da autopistak onurak baino gehiago kalteak ekarriko dituela. Errazenera jotzen da beti, bide zaharrak ganoraz konpondu beharrean berriak egin eta listo.

Bueno Karmen, aber asuntue mejoretan dan!

“Gutako asko eta asko pasatzen gara bide horretatik eta ondo dakigu bidea ez dela aurrenekoa”

Aretxagazeta

Durana 11
20550 ARETXABALETA
Tel.: 943 79 86 21
Faxa: 943 77 18 54
Posta-e: aretxagazeta@goiena.com

ZUZENDARIA
Mirari Altube

ERREDAKZIOA
Mirari Altube
Zuriñe Velez de Mendizabal

MAKETAZIOA
Alex Azkarate

PUBLIZITATEA
Ziortza Martin

ZUZENTZAILEA
Sergio Azkarate

LEGE-GORDAILUA
55-378-94

ISSN
1134-2609

TIRADA
2.700 ale

ARETXAGAZETA / ZE BARRI? • Edizio honek erakunde hauen laguntza izan du:



Eusko Jaurlaritzako
Kultura Saila



Gipuzkoako
Foru Aldundia



Aretxabaletako
Udala



Eskoriatzako
Udala



Leintz Gatzagako
Udala



M. J. Aretxaga

Sartu gara udan

Domekatik astelehenera bittartien sartu gitzen udan. Hala esan euskuen behintzet dakixienak. Aurtengue, gaiñera, eguzkitsue baiñe bero larreirik bakue izen biher ei da. Ia asmetan dauien, neu behintzet poztuko nitzake eta. Beruei aurre egitako udako kirolak egin biher. Murrukixokuek piraguan ibiltten fango die aste bukaeran, eta kirol etxiek ume eta gaztetxuendako antolatu dittuen ikastaruek astelehenien hasiko dittue.

Kirolarixek aittetute ezin ahaztu aurreko aste bukaeran Quebrantahuesos egittera fan zienak: Alfredo Meabe, Txispas, Jorge Oiarbide, Gorka Etxabe, Jon Urkia... baten bat ahaztuko nauen, baiñe danai zorionak. Fresko euki daue aurten, eta benetan eskertu euien txirrindularixok.

Umiek eta gaztetxuek ikasturte bukaerako jaixek euki dittue egunotan, eta dagoeneko oportetan daz. Bejondeiela. Langille gehixenok apur bat etxoin biherko dou. Baiñe aillegako jaku.

Banatu dituzte Tubos lantegi alboan egingo dituzten hemeretzi etxebizitza sozialak

M.A.

Eguaztenean egin zuten etxebizitza sozialak banatzeko zozketa. 20 egingo dituzte Tubos lantegi alboan, baina horietatik 18 eman zituzten. Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza eta Gizarte Gaietarako sailburu Javier Madrazok hartu zuen parte ekitaldian.

Eguaztenean zozketatu zituen Eusko Jaurlaritzak Aretxabaletan egingo dituzten etxebizitza sozialak. 24 izen zeuden zerrendan eta horietatik 18k eskuratu zituzten.

ERRENTAN EMATEKO ETXEAK

Guztira 19 etxebizitza zozketatu behar zituzten, baina ezinduendako izendatutakoa ez zuen inork eskatu eta momentuz hutsik uztea erabaki zuten. Guraso bakarrek familiarendako bakarrak eskatu zuten eta berari eman zioten. 14 izan ziren 35 urtez azpiko gazteendako eta beste hirurak gainerako eskaeren artean banatu zituzten.

Errentan emango dituzte etxeok, eta 50,63 metro koadrotik 70era bitartekoak izango dira. Txikienaren alokairua 61 eurokoa izango da, eta handienarena 127 koa.

Etxebizitzaren jabeen zerrenda:

Guraso bakarrek familiarendako:

- Ana Carmona Gantxegi

35 urtez azpiko gazteendako:

- Mauricio Hernandez Lombide

- Oneida Zubia Ramos

- Mikel Lopez Esteban

- Ane Miren Agirre Urkia

- Beñat Markaide Zubizarreta

- Miguel Angel de la Torre Salvador

- Ana Belen Hidalgo Corral

- Haritz Larrinaga Urzelai

- Asier Errasti Perez

- Maria Diaz de Guereñu Fernandez

- Roberto Egia Ocariz

- Mireia Ribera Izurrategi

- Aranzazu Fernandez Gonzalez

- Estibaliz Uribetxebarria Madinabeitia

Gainerakoendako:


- Roberto Puerto Nieto

- Josefa Horriño Ramos

- Javier Errasti Legazpia



Javier Madrazo sailburua izan zen testigu eguaztenean egin zuten zozketan.




DBHkoen ikasturte bukaerako jaiak

Kurtzebarri eskolako DBHko ikasleek ikasturte bukaerako jaiak egin zuten martitzenean. Tortilla lehiaketa egin zuten goizean goiz eta gero, irakasle eta DBHko 4. mailako ikasleen arteko sokatira lehiaketa. Markel Uriartek trialsin erakustaldia eskaini zien, eta bukatzeko, DBHko 4. mailako ikasleei agur ekitaldia egin zieten. Izan ere, horiek datorren ikasturtean ez dira eskolan egongo. /M.A.

ARETXABALETAN RESIDENCIAL BEROA



Orain aukeratu egin dezakegu!



- Duplexak terrazekin
- Atikoak terrazekin
- Logela bateko eta bi logelako apartamentuak
- Hiru eta lau logelako etxebizitzak

Informa zaituzte Aretxabaleto gure bulegoan (obra aurrean)
Belorrieta auzoa 13. Tel. 943 711 770

Omenaldiarekin agurtu zituzten ikasleek Santa Ritako mojak

M.A.

Joan zen egunean egin zuten ikasturte bukaerako jaialdia Santa Rita ikastetxean. Orain arte eskolak ematen eta laguntzen ibili diren agustindar mojej ere agur esan zieten ikasleek eta gurasoek.

Ikasturte bukaera berezia izan dute Santa Ritako ikasle, irakasle eta mojek. Izan ere, datorren kurtsuan agustindar mojek ez dute eskolarik emango, eta Arizmen-di ikastolara joango dira ikasleak.

OMENALDI BEROA

Aurten 2 eta 6 urte bitarteko 80 ikasle ibili dira Santa Rita ikastetxean. Guztiek egin zuten kantu eta dantza erakustaldia gurasoen aurrean egunean.

Aurtengo jaia, baina, berezia izan da. Agustindar elkarteko

mojek agur esan zieten ikasle eta guraso guztiei, eta horiek omenaldia eginez eman zizkieten eskerrak. Azken urteotan umeekin gehien ibili diren lauk, Kristinak, Nekane, Juana Marik eta Arantxak, jaso zuten omenaldia moja guztien izenean.

Jon Sarasuak bertsoak eskaini zizkien, eta Santa Ritan irakasle lanetan ibili direnek aureskua egin zieten dantzan. Gurasoen izenean, bestalde, oroigarria jaso zuten. Momentu hunkigarriak izan ziren joan zen egunean Santa Rita ikastetxean.

OTOITZ LEKUA

Aurten bete dituzte agustindar mojek 100 urte Aretxabaletan. Horietatik 47 eskolak ematen pasatu dituzte. Orain, baina, eskola itxi eta ostatua indartzeko asmoa dute; Santa Rita egoitza otoiitz lekua izatea gura lukete.



Omenaldi beroa eskaini zieten ikasle eta gurasoek agustindar elkarteko mojej.

Euskararen Egunean hasi eta jairik jai dabil batukada jotzen duen taldea

M.A.

Orain hilabete, Euskararen Egunean jo zuten lehen aldiz herriko 30en bat gaztek batukada. Orditik hona geratu barik dabilta lanean; joan zen astean Eskoriatzan izan ziren Zapatista Egunean eta asteburu honetan Arrasaten egongo dira San Juan jaiak direla-eta.

Burrumbada galanta atera zuten Euskararen Egunean herriko 30en bat gaztek. Danborrak, perkusio kaxak, ontziak... Eskura topatutako edozer hartu eta kalean gora kalean behera ibili ziren giro paregabea sortuz.

INGURUKO HERRIETARA

Loramendi Euskara Elkartek izan zuen burutazioa eta Martin Antxiari egin zioten dei batukadaren gaineko ikastaroa eman zezan. Helburua zen batukadarekin Euskararen Eguna girotzea. Eñan eta egin. Gazte ugari animatu ziren ikastarora, gehienak Gazte Ekimeneko kideak, eta gogoz ikasten jardun ostean benetan girotu zuten eguna.

Hori ikusita inguruko herrietatik deitu diete perkusioa jotzera joan daitezten. Hala, Eskoriatzan egon ziren asteburuan, Zapatista Asteko ekitaldietan, eta bihar, zapatua, Arrasateko txosna-gunean izango dira San Juan jaiak girotzen. "Gure asmoa ez zen inondik inora herritik ateratzea, Euskararen Eguna girotzea baizik. Baina jendeari gustatu eta deitu egin digute euren herrietara ere joan gaitezten", dio Martinek.



Euskararen Egunean jo zuten lehen aldiz batukada taldeko kideek.

ETXEKO ONTZIAK INSTRUMENTU

Gazteak dira partaide guztiak, 16 eta 25 urte bitartekoak. 30en bat elkartzten dira batukada jo eta ondo pasatzeko helburuarekin: "Udalari eskatu dizkiogu danbor batzuk, eta perkusio kaxa pare bat etxetik ekarri ditugu. Gainerako

instrumentuak egunero erabiltzen diren tresnak dira: sukaldeko ontziak, pintura potoak, gaila kaxak...", dio Martinek.

Etokizunari begira ez dauka Martinek oso garbi zer egingo duten: "Urtean behin herriko jairen bat girotzeko jotzea genuela helburu uste dut, sarri agertuz gero gogaitzeko arriskua daukagu-eta. Andramaixetan ez dakit zer egingo dugun, baliteke jotzea... Kanpora joateari dagokionez, inguruko herrietara ailegatu gara, baina ez dut uste harantzago joango garenik". Argi dago gustura hartu dituztela herriarrek, gazte nahiz nagusi, hortaz, etorkizun polita daukate duda barik.

"Gure asmoa ez zen inondik inora herritik ateratzea, Euskararen Eguna girotzea baizik"

Iber

★ Loteria ★

✿ Paper denda ✿

✱ Liburuak ✱

Otalora 2.
ARETXABALETA
Tel.: 943 79 04 39

BENGOA URDAITEGIA

Bertako okelak
eta mortzilak

Durana 9. Aretxabaleta
Tel.: 943 79 19 79

Lie

LURRINGEGIA
OPARI DENDA

Mitarte 18 • 943 79 38 59
ARETXABALETA

Expres



Santakurtz 16
943 79 23 43

Maritxu drogeria mertzeria

Araba Ibilbidea 24
Tel.: 943 79 23 53
ARETXABALETA

PAGALDAI

*Opari denda
Lurrindegia*

Durana 33 • Aretxabaleta
943 79 10 14

Aretz

taberna

Markole 5
Tel.: 943 79 14 67
ARETXABALETA

PIENSO
SUNZUE S.A.

FELIX PAGALDAY

Laborantza tresnak
Ongarriak- Haziak

Mitarte 7 behea
ARETXABALETA
Tel. 943 77 00 33/79 42 56

MAPFRE

Aseguroak

Errekabarren 3
Aretxabaleta
Tel.: 943 77 11 76

Jauregi Okindegia

Otalora 10
Tel.: 943 79 57 47
ARETXABALETA

PILOTA

Debarroko Txapelketako finala jokatuko dute bihar Errasti anaiek

Bergararak izango dituzte aurrez aurre, Eskoriatzan, 17:00etan hasiko den partiduan

M.A.

Aurten, iaz bezala, Debarroko Pilota Txapelketako finalean izango dira Errasti anaiek. Bergarako Muguruza eta Gutierrez izango dituzte aurrez aurre, eta partidu gogorra izango da, duda barik. Eskoriatzan jokatuko dute, bihar, zapatua, 17:00etan hasita.

Denboraldi polita egin dute Errasti anaiek; hala, Debarroko Pilota Txapelketako finalera iritsi dira. Bihar biribildu beharko dute orain arte egindako txapelketa.

UDABERRI TXAPELKETA IRABAZI ZUTEN

Urte bikaina egiten dabilta Unai eta Ibon Errasti anaiek. Apirilean, Udaberri Pilota Txapelketa irabazi zuten, Urretxuko bikote bati gailenduta. Euskal Herri mailako Udaberri Txapelketa jokatzen ere hasi ziren, baina partiduak pilotu egin zitzaizkien eta uztea erabaki zuten. Orain, Debarroko Txapelketako finala dute aurrez aurre. Muguruza eta Gutierrez bergararren aurka jokatu beharko dute, eta ez da partidu samurra izango.



Udaberri Txapelketa irabazi zuten apirilean, eta Debarroko txapelkun izan gura dute.

SEIGARRIN FINALA

Debarroko Txapelketako seigarren finala jokatu du Aretxabaletako bikoteak bihar Eskoriatzan. Hiru aldiz izan dira txapelkunak, azkena iaz, Zugasti eta Lazkano arrasatearrei irabazita.

Aurten, ikusi egin behar. Urtetan aurrera doaz anaia biak —dagoeneko 31 dituzte—, baina sasoi onean daudela erakusten dabilta, eta oraingo, datorren denboraldian ere pilotan jokatzen jarraitzeko asmoa daukate.

TXIRRINDULARITZA

Antxon Anduaga izan zen Debagoieneko txirrindulari onena Euskadiko Txapelketan

Joan zen zapatuan egin zuten Euskadiko Txirrindulari Txapelketa Oñatin. Euskal Herri osoko 117 txirrindularik hartu zuten parte, eta eguraldi txarrarekin egin behar izan zuten 46 kilometroko ibilbidea. Julen Gonzalez beasaindarrek irabazi zuten txapelketa esprintean. Debagoieneko txirrindulari onena, ostera, Antxon Anduaga aretxabaletarra izan zen, eta irabazlearen denbora berean iritsi zen helmugara. Denboraldi ona egiten dabil Antxon; izan ere, orain dela aste batzuk egin zuten Pedro Guenetxea Memorialean bigarrena izan zen.

XAKEA

Fran Miguel eta Aitor Alcaide xake jokalariek Zumarragako txapelketan hartuko dute parte

Bihar, zapatua, Zumarragako Xake Txapelketa jokatu dute. Arlutz Xake Taldeko Fran Miguelek eta Aitor Alcaidek hartuko dute parte bertan, eta Aitorren esanetan maila handia egongo da.

Joan zen asteburuan, bestalde, Gipuzkoako Xake Bizkorreko txapelketan hartu zuten parte Arlutz Xake Taldeak Azkoitin. Faboritoen artean zegoen taldea, baina azkenean bosgarren postuan geratu ziren.

FUTBOLA

Uztailaren 10ean, zapatua, egingo du batzar orokorra Aretxabaleta Kirol Elkarteak

Datorren uztailaren 10ean, zapatua, 11:30ean egingo du Aretxabaleta Kirol Elkarteak, UDAk, urteko batzar orokorra. Maiatzaz gero zuzendaritza batzorde berria du UDAk, eta poliki-poliki lanean hasita badago ere, batzar horretan hartuko ditu ardura guztiak. Denboraldi honetako kontuak itxiko dituzte egun horretan, zuzendaritza batzorde zaharrari agur esan, eta hurrengo denboraldirako dituzten asmoen berri emango dute.

■ ARGIA EUSKAL DANTZARI TALDEA ■

Pas de Basque

Euskal dantzen ikuskizuna

EUSKAL DANTZEN IKUSKIZUNA

Zuzendaria: JUAN A. URBELTZ

Tokia: Aretxabaletako kirol etxean

Data: 2004ko uztailaren 3an

Ordua: 22:30ean

SARRERAK SALGAI

Kirol etxean
Kultura etxean
Arlutz tabernan
Gurea tabernan

Prezioa: Aurrez 15 euro



ESKANDINAVIAN zehar zirkuituak

UZTAILEKO Irteerak 8 egun / 7 gau

FINLANDIA IKUSGARRIA

HOTELAK *** / **** MO/ME 1.374

Ikustekoak: Rovaniemi, Kuopio, Koli, Savonlinna, Porvoo y Helsinki.

NORUEGA IKUSGARRIA

HOTELAK *** / **** ME/HG 1.394

Ikustekoak: Oslo, Geilo, Bergen, Valle de Voss, Sognefjord, Región de los Fiordos, Crucero Geiranger, Alesund y Trondheim.

ERREP. ETA BALTIKOKO PERLA EDERRAK

HOTELAK *** / **** ME 1.434

Ikustekoak: Vilnius, Riga, Tallinn, Báltico y Estocolmo.

FIORDOETAKO INPERIOA

HOTELAK *** / **** MO/HG 1.524

Ikustekoak: Bergen, Valle de Voss, Región de los Fiordos, Oslo y Copenhague.

BALTIKOKO ERREPUBLIKAK

HOTELAK *** / **** ME/HG 1.518

Ikustekoak: Vilnius, Riga, Tallinn, Helsinki y St Petersburgo.

HORIZONTES DE GRANDEZA I

HOTELAK *** / **** HG/ME 1.519

Ikustekoak: Rovaniemi, Kiruna, Parque de Abisko, Islas Lofoten, Vesteralen, Tromso, Fiordos de Lyngen y Ulls, Ctra Atlántica, Alta, Cabo Norte, Karasjok y Lakselv.

ISLANDIA IKUSGARRIA


HOTELAK TUR / 1º HG 1.849

Ikustekoak: Reykjavik, Región de Nordurland, Myvatn, Lago Myvatn, Egilsstadir, Región de Austurland, Región Skafafellssylur, Skogafoss, Hvolsvöllur, Círculo Dorado y Laguna Azul.

400 bulego baino gehiago zure zerbitzura

902 108 108 - viajesiberia.com

BAL-001-MM



GIPUZKOAKO BULEGOA

DONOSTIA

- Avda. Isabel II, 7 Tel. 943 44 44 90
- Boulevard, 27 Tel. 943 42 73 61
- Churruca, 8 Tel. 943 42 35 50
- Matia, 48 Tel. 943 22 40 89
- Padre Larroca, 7 (Gros) Tel. 943 27 26 00
- San Martín, 6 Tel. 943 42 00 71

ARRASATE

- Kontezino Kalea, 18 Tel. 943 71 27 72

BERGARA

- Ibarra, 3 Tel. 943 76 98 70

Irteerak Bilbotik. Prezioak pertsonako logela bikoitzean eta aurretik aipatutako erregimenean, uztaileko egun konkretuentzat bakarrik. Aireko tarifen igoera, tasak, bisa eta gestio datuak ez daude barne. Janari-erregimena: HG, Hotela eta Gosaria; ME, Mantenu Erdia; GB, Guztia Barne. **ESERLEKU MUGATUAK.**


ZURE OPORRENGATIK EGIN
DEZAKEGUN GUZTIA EGIN EGITEN DUGU

Irteerak
BILBOTIK

VIAJES  IBERIA

PRÉZIOA BAINO ASKOZ ERE GEHIAGO...

Ondo pasau San Pedrotan!



udan freskura beharko duzu... euskara beti!



LEINTZ Udal Euskaltegia

www.udaleuskaltegiak.net

LEINTZ Udal Euskaltegia

ARETHABALETA Nafarroa • 2-4 20550 ARETHABALETA
Tel.:943 79 21 68 • Faxa:943 79 92 62

ESHORIATZA Intxaurthueta 10 • 20540 ESHORIATZA
Tel.:943 79 21 68
leintzeuskaltegia@leintz.euskalnet.net

Gora San Pedruek!



Jatetxea • 7 txabola guztiz prestatuta • Urte osoan zabalik

GAZTAINUZKETA: NATURAREKIN BAT EGINIK

Informazioa eta erreserbak: 943 71 51 64 eta 617 78 74 32 LEINTZ GATZAGA

Ze barri?

ESKORIATZA ETA LEINTZ GATZAGA / Egubakoitza / 2004ko ekainaren 25a / 171. zenbakia




Kuadrilen giruek
igerri daixela
herri txiki hontan
jaixetan gazela

SAN PEDROAK04

ANDER GILLENEA

San Pedro Jaiak



zorionak Eskoriatzar guztioi

FAGOR 

Fagor Ederlan

Fagor Ederlan, S. Coop.

Torrebaso 7
20540 Eskoriatza
Gipuzkoa
SPAIN
Tel: +34 943 719 000
Fax: +34 943 719 001

 HONDARON

ALKATEARENAGURRA/ Juan Carlos Bengoa

Agintaldi honek urte beteko bidea egin du eta aurreko urteetan pentsatutako egitasmoak, Eskoriatzan eragin nabarmena izango dutenak, gauzatzen hasita gaude. Besteak beste, autopistaren obra-hasiera gainean daukagu eta tranbiak herriko kaleetan izango duen trazadura ere oraintxe definitzeko dago.



Ekainaren bukaerako egunak erabakigarriak izango dira bi egitasmo horien jarraipenerako, baina horrek ez digu eragotziko San Pedro jaiak primeran pasatzeko aukera.

Bestalde, eta betiko topikoa dirudien arren, ez ditut eskertu barik utzi nahi jai eta kultura batzordean lan egin duten guztien ahaleginak, aurten ere egitarau aberatsa eta eskoriatzar guztion gustukoa prestatu baitute. Gainera, urtero legez gogora ekarri nahi ditut arrazoi ezberdinak medio gure herriko jaietan egon ezin diren eskoriatzarrak.

Herriko jaietan ondo pasatzera eta parte hartzera gonbidatu nahi zaituztet eta aurtengo esaldi lehiaketan saritutako esaldi bat erabiliko dut esan nahi dizuedana adierazteko

*Arazuak bazterrien itxi,
Sanpedruak bixi-bixi bizi.*



Aita Emiliano Barandiarani omenaldia

Julian Barandiaran 1904an jaio zen, Bolibarko Olagoiti baserrian. Hamaika urterekin sorlekua utzi eta Markinara joan zen, bertako karmeldarrendik erlijio ikasketak jasotzera. Aita Emiliano del Niño Jesus izena hautatu zuen bizitza erlijiosorako. Euskara eta musika esparruetan aritu zen buru-belarri. Orga-

nista ospetsua eta txistularia izan zen, besteak beste. Hainbat konposizio egin, herri abestiak moldatu...

Museo Eskolan irekiko duten erakusketan, bere bizitza kontatzeaz gain, garrantzitsu izan ziren hainbat elementu jarriko dituzte ikusgai: argazkiak, musika tresnak, liburu originalak eta karpetak, esaterako.

Zapatua, 26

17:00 DEBARROKO PILOTA TXAPELKETA PILOTALEKUAN
Hiru partidu: kadeteak, gazteak eta seniorrak.

20:00 AURKEZPENA
Udaletxeko osoko bilkuren aretoan, Aita Emiliano Barandiaran eskoriatzarraren jaiotzaren mendeurrenagatik, *Karmel* aldizkariak haren omenez egindako monografikoaren aurkezpena. Ekitaldian, Juan Carlos Bengoa Eskoriatzako alkate, Aitor Antxia, Maider Otamendi eta Angel Barandiaranek hartuko dute parte.

Domeka, 27

12:00 EUSKAL MEZA
Aita Emiliano Barandiaranek egindako lehen Euskal Meza San Pedro elizan. Aretxabaletako abesbatzak abestuko du.

13:30 Museo Eskolan Aita Emiliano Barandiarani buruzko ERAKUSKETAren inaugurazioa.



**Jairik zorientzuenak
opa dizkizue Lenizek!
Ondo ibili!**



KONPONKETAK: TXAPA, MARGOA, MEKANIKA

Bigarren eskuko autoen salerosketa,
injektoreen konponketa eta I.A.T. aurreko azterketa

Aingeru ibiltokia 31 • ESKORIATZA
Tel.: 943 71 50 61 / Faxe: 943 71 31 45
Posta-e: rleniz@euskalnet.net

PREGOIA ARETO FUTBOLEKO TALDEAK EGINGO DU AURTEN PREGOIA TXUPINAZOAREN OSTEAN

Pregoa, areto futboleko taldearen eskutik

Orain 10 urte kirol elkarteak egin zuen jaietako pregoia, eta aurtan areto futboleko kideek egingo dute

MIRARI ALTUBE

Areto futboleko jokalariek denboraldi bikaina egin dute, eta hori saritzeko pregoia esango dute. Saskibaloiko neskek izango dituzte lagun udaletxeko balkoian.

Arrazoi asko ditu Eskoriatzako Kirol Elkarteak pozik egoteko. Batetik, 40. urteurrena ospatzen dabiltza aurtan; eta bestetik, denboraldi bikaina egin dute bai areto futboleko bi taldeek, bai nesken saskibaloio taldeak. Horregatik guztia-

gatik eskerrak eman eta zoriontzeko, Udalak San Pedro jaietako pregoia egiteko eskatu dio areto futboleko talde nagusiari. Manolo Muñoz elkartearen presidentearen esanetan, ohore handia da jaietako pregoia egitea: "Orain 10 urte, elkartearen 30. urteurrenean ere neuk egin nuen pregoia. Orduan esan nuen ez nuela gura beste 30 urte pasatzerik pregoia egin barik, eta halaxe izan da".

Izan ere, denboraldi bikaina egin dute areto futboleko taldeek. Nagusienek Arabako ohorezko txapelketan jokatu dute, eta txapelidunak izan dira; ez hori bakarrik, zortzi puntuko



Euskal Ligara igo diren areto futboleko jokalariek egingo dute aurtengo jaietako pregoia.

aldea atera diote bigarren sailkatuari. Hori horrela, Euskal Ligan jokatu dute datorren denboraldian. "Iaz mailaz jaitsi ginen ezohiko

arrazoiengatik. Edozelan ere, bagenekien gure taldeak goian egon behar zuela, eta jaitsi orduko igo egin gara", dio Manolok.

Maila bat beherago dagoen areto futboleko taldea ere igo egingo da, eta hurrengo denboraldian goian jokatu du. Saskibaloiko neskek ere oso denboraldi ona egin dute. Hori horrela, areto futboleko mutilek saskibaloiko neskek gonbidatu dituzte eurekin balkoian egon daitezen, eta bien artean esango dute aurtengo jaietako pregoia.

"Elkartearen 30. urteurrenean egin nuen pregoia, orain 10 urte; eta ez nuen gura beste 30 urte pasatzerik pregoia egiteko"

Astlehena, 28

18:30 Jaiei hasiera emateko TXUPINAZO eta PREGOIA herriko plazan. Aurtan, Eskoriatzako Kirol Elkartearen areto futbol taldeak egingo du.

Ondoren MUSIKA ESKOLAKO BANDAREN kalejira.

19:00 BURUHANDIAK txistulariekin batera eta kalejira Trikitilari Eskolako ikasleekin.


19:30 San Pedro elizan PARROKIAKO ABESBATZAK lau ahots mistotan H. Eslavaren SALBEA abestuko du.

20:00 Herriko plazan DANTZALDIA TRIKIZIO taldearekin.


22:30 NAGUSIEN DANBORRADA

01:00 Zaragozana Piroteknariaren SUZKO ERRUBERAK. Kanposantutik botako dituzte.

01:30 Berrito ere DANTZALDIA TRIKIZIO taldearekin.




Aranburuzabala 22, behe
ESKORIATZA
Tel.: 943 71 51 20



EZPAINAK
Ezpainen txukuntzea
Profilatzea eta lausotzea

MIKROPIGMENTAZIOA


BEKAINAK
Perfekzioa eta harmonia



BEGIAK (EYELINER-a)
Dotoretasuna
eta naturaltasuna

INFORMA ZAITEZ

Ondo pasa jaixak!



Ondo pasatu San Pedrotan!

Aranburuzabala 3 • Eskoriatza • Tel.: 943 71 45 46

SAN PEDRO EGUNA

FLAMENKOA, DANTZA ETA ZIRKUA UZTARTURIK 'MALAJE' IKUSKIZUNEAN

Arlo artistikoak bat eginik San Pedro egunean

Irudimena dantzan jartzeko ikuskizun berritzailea taularatuko du Al Badulake Konpainiak

Z.V.M.

San Pedro egunean ikuskizun berezia taularatuko dute Gorosarri plazan. Al Badulake taldearen azken lana, *Malaje*, ikusteko aukera egongo da.

Extremadura eta Andaluziako kideak biltzen ditu Al Badulake Konpainiak, eta martitzenean Eskoriatzan egongo dira. *Malaje* deitzen da euren azken lana, eta Gorosarri plazan taularatuko dute ikuskizuna. Sei artistak

osatzen dute taldea, eta bakoitzak hainbat arlo uztartzen ditu: akrobazia, dantza, gitarra jotzea, perkusioa...

Ikuskizun berritzailea da Al Badulake taldearen azken lana. Zirku garaikidea, flamenkoa eta antzerkia nahasten dituen emanaldia.

Malaje ikuskizuneko eszenatokiak gurdi bat irudikatzen du, eta bertan, askotariko sentsazio eta koloreak nahastuko dira. Ikusleek ikuskizun berritzailea izango dute San Pedro egunean Gorosarri plazan.

Martitzeneko emanaldiak ikuslea denboran atze-



Hainbat esparru jorrateko askatasuna izanik, emaitza ikusgarria lortzen dute *Malaje* ikuskizunean.

ra eramango du. Hala, ijitoen aspaldiko ohitura bat taularatuko dute. Hau da, aspaldi, ijito komiko familiarak Europan zehar ibil-

tzen ziren euren ikuskinak herritarrei eskaintzen. Haiek ikusteko aukera zutenek irudimena dantzan jartzan zuten, artis-

tek sortzen zituzten sentsazioek bultzatuta.

Zuzeneko musika egiten dute talde extremadurar-andaluziarreko kideek tinbal eta danborrek lagunduta, besteak beste, eta taldekide bakoitzak bere esparrua jorratu, azkenean bat egin eta ezohiko emanaldia sortzen dute. Beraz, aukera paregabea ikuskizun ederraz gozatzeko.

Sei artistak dihardute 'Malaje' ikuskizunean, eta askotariko arloak uztarturik ezohiko emanaldia eskainiko dute

Martitzena, 29

09:00 Herriko txistulariekin KALEJIRA

11:40 ELIZBIRA.

11:55 Udalbatza San Pedro elizara joango da txistulariekin.

12:00 San Pedro elizan MEZA NAGUSIA.

13:15 MUSIKA ESKOLAKO BANDAREN KONTZERTUA herriko plazan.

18:00 POXPOLO eta MOKOLO pailazoak herriko plazan.

18:30 PILOTA PARTIDUAK pilotalekuan.

Galarza V-Laskurain // Chafee-Urberuaga

XALA-BARRIOLA // MTZ.DE IRUJO-GOÑI III Salneurriak: Kantxan 18 euro; harmailtan 12 euro. Leihatila ordubete lehenago irekiko dute.

19:00 ABERIA kale antzerkia, TRAPU ZAHARRA taldearekin.

20:00 JOSELU ANIAK taldearekin dantzaldia herriko plazan.

23:00 AL BADULAKE taldeak flamenkoa, dantza eta zirkua uztartzen dituen *Malaje* ikuskizuna Gorosarri.

24:00 JOSELU ANIAK Dantzaldia herriko plazan.



San Migel jatetxea

Apotzaga auzoa ESKORIATZA 943 71 48 71

SAN PEDRO JAI ZORIONTSUAK OPA DIZKIZUEGU!

Hemen
GARBIKETAK

Garbiketetan
profesionalak gara

943 71 48 45

607 94 89 84

www.hemen-garbiketak.com

Gora San Pedroak!

IKUSKIZUNA

SUZKO KALEJIRAK ARGITUKO DITU ESKORIATZAKO KALEAK EGUAZTENEAN

Diablos de Badalona taldearen suzko kalejira

Mediterraneo inguruko ohitura Eskoriatzara ekarriko du eguaztenean Kataluniakoa taldeak

Z.V.M.

Correfoc edo suzko kalejira. Hori da Diablos de Badalona taldeak egiten duena. Piroteknia elementuak erabiliz, zirrara eragingo dute herritarrengan.

Badalonako (Katalunia) talde baten eskutik, suzko kalejira egingo dute Eskoriatzaren hilaren 30ean. Gure artean ez da ohikoa horrelako kalejirarik egitea. Katalunian, aldiz, ohitura da *correfoc* edo suzko kalejirak ospatzea. Hori egi-

ten dute Diablos de Badalona taldeko kideek. Ikuskitzuna joan gura dutenek mahuka luzeko kamiseta eta buruan zapia edo kape-la eramatera gomendatzen dute antolatzaileek.

1983. urtean sortu zen Diablos de Badalona, eta Kataluniako kulturaren parte den ekimenari eutsi gura izan diote. Hori erakustera etorriko dira Eskoriatzara.

Kide bakoitzak mazo bat du, eta puntan piroteknia materiala jartzen diote. Horrekin jolastuz, bost pertsonaia irudikatzen dituzte: *Llucifer, Diablosa, Fogoner, Borronseta Tabalers*. Infernuko pertsonaia.



DIABLOS DE BADALONA

Nahiz eta pirotekniarekin jolastu, arrisku gutxiko ikuskizuna eskainiko dute kataluniarrek.

Sua erabiliz, beraien izena omentzen dute. Horrela, deabruak infernua irudikatuko dute. Arrisku gutxiko ikuskizuna izango da;

hala ere, antolatzaileek emandako gomendioak betetzea garrantzitsua izango da, inongo ezustekorik gerta ez dadin.

Katalunian ohikoa da ikusleek taldekideekin batera salto eta korrika egitea. Hala ere, ikusle pasiboek 8-10 metrotik lasai asko ikus dezakete ikuskizuna, Eduard Esteve talde horretako partaideak adierazita koaren arabera. "Mediterraneoko suaren kultura ezagutzera emateko aukera interesgarri eta oso zirraragarria da".

Suarekin jolasten du Diablos de Badalona taldeak, eta ikuskizun zirrargarria eskaintzen dute

Eguaztena, 30 Umeen eguna

11:00 MARRAZTU GURE HERRIA 5-14 urte bitarteko haur eta gazteentzako. Material banaketa: Gorosarri plazan.

12:30 EUSKARAOKEA Gorosarri Plazan eta margotzen parte hartzen dutenen artean opari zozketa.

16:30 XIII MUS TXAPELKETA Gernika plazan.

Izen ematea: ordu erdi lehenago. 12 euro

Sariak:

1- Jasotako diruaren %50, garaikurrak eta txapelketak.

2- Jasotako diruaren %25 eta garaikurrak.

3- Jasotako diruaren %15 eta garaikurrak


4- Jasotako diruaren %10

18:30 UMEEN DANBORRADA

20:00 EGAN taldearekin dantzaldia herriko plazan.


23:00 Erdiko kalean CORREFOC suzko kalejira 'DIABLOS DE BADALONA' taldearekin.

24:00 EGAN taldearekin dantzaldiak jarraituko du.



Gozatu eta ondo pasatu gure herriko JAIXAK!

ILE APAINDEGIA · LUZATZEAK · MAKILLAJEA · LOOK ALDAKETAK
Aranburuzabala 30 ESKORIATZA 943 71 30 31



leniz sa fundizioak

Jai zoriontsu eta alaiak izan ditzazuela!

Aingeru ibiltokia 12, ESKORIATZA
www.fundiciones-leniz.com

ELKARRIZKETA JOSEBA GABILONDO GAZTE ASANBLADAKO KIDEA

'Ikusgarria da Euskal Jaiak nolako indarra hartu duen, jende ugari erakartzen du'

Z.V.M.

San Pedrotan ez da aspertzeko betarik egoten. Ohiko egitarauaz gain, Gazte Asanbladaren ekin-tzak egiten dira. Josebak euren asmoen berri eman digu.

Gazte Asanblada San Pedro jaietan presente egon da sortu zenetik. Zertan hartuko duzue parte aurtengo jaietan?

Danborradan eta Euskal Jaietan hartuko dugu parte, besteak beste. Astelehenean danborra jotzera irtengo gara, eta eguenean, berriz, sagardoa zerbitzatzeko egingo dugu lan. Gainera, Gazte Asanbladak bere egitaraua antolatu du.

Beraz, aurten ere prestatu duzue ekimenik.

Bai. Batez ere musika egongo da entzungai Gazte Asanbladaren egitarauari dagokionez. Astelehenerako, San Pedro egunerako, koadrilen arteko herri kirolak antolatu ditugu herri-



ko plazan, 16:00etan. Gauean, 22:00etan hasita Golpe de Estado eta Poison Ladys taldeak arituko dira gazte-txean. Martitzenean, Kalte

eta Biok taldeen emanaldia izango da, 22:30etan hasita. Azkenik, uztailaren 2an hiru talde arituko dira gaztetxean: Brigada Criminal,

"Danborradan eta Euskal Jaietan hartuko dugu parte"

"Herri kirolak eta kontzertuak antolatu ditugu"

"Jaiak aste barruan izanda, jende gutxiago ibiliko da"

Captain Nemo eta Valium Generatium izango dira gau hori girotzen..

Izan al duzue zailtasunik antolaketa lanak egiterakoan?

Egia esan bai. Gu ez gara talde handia, eta laguntza eskatzeko batzarra egiteko dei egin genien herriko tabernari eta koadrilei. Baina tabernariak baka-

rrik agertu ziren. Koadrilen arteko eguna-edo antolatu gura genuen, baina jendea antolatze lanetara animatu ez denez, herri kirolak bakarrik prestatu ditugu.

Zer berezitasun du Euskal Jaiak zuzentzat?

Asko gustatzen zaidan jaiak da. Gainera, nahiz eta orain Jai batzordearen barruan egon, Gazte Asanbladak sortutako eguna da. Ikusgarria da nolako indarra hartu duen, eta zenbat jende biltzeko gaitasuna duen. Benetan merezi duen jaiak dela uste dut.

Aurten San Pedroak aste barruan ospatuko dituzue.

Bai, eta horrek herritar gutxiagok parte hartuko duela esan gura du. Izan ere, jende askok egiten du kanpoan lan, eta ez dute jairik izango.

Eta nola biziko dituzue zuk jaiak?

Azken urteetan bezala, tabernan lanean arituko naiz. Beraz, jaiak gozatze-ko aukera gutxi edukiko dut. Hala ere, eskoriatzarrek jaiak ahalik eta ondoren igarotzea da nire nahia.

Eguena, 1 Euskal Jaia

09:00 Herriko txistulariekin kalejira.

12:00 TALOGILEAK eta SAGARDO KUPELAK herriko plazan. IZAR eta ALABIER trikitaliak arituko dira bertan.

12:00 EUSKAL DANTZAK herriko plazan. Musika Eskolako dantzari taldeen ikuskizuna.

12:30 Umeentzako arrantzaleen jolas eta jokoak pilotalekuan.

13:00 HERRI KIROLAK plazan. Fausto Mugerza eta Jesus Olaizola aikolariak eta Landarbidetako harri-jasotzailea.

14:30 HERRI BAZKARIA Gorosarri plazan. Bazkalostean trikitalien erromeria egongo da.

17:00 Gorosarri plazan zezen txikiak eta pottokak gazte eta helduentzako.

18:00 BURUHANDIEKIN eta TXARANGAREKIN kalejira.

19:30 Euskal preso eta errefuxiatuen aldeko kalejira txarangarekin batera.

22:00 TAPIA eta LETURIA bikotearekin dantzaldia herriko plazan.

24:00 JAI BUKAERAKO TRAKA

Calderería
Cantera, S.L.
ALUMINIOAK

Ondo ibili SAN PEDROTAN!

Zurgintza alumioa erabilita

Aingeruarda ibilbidea z/g • Tel.: 943 71 48 11 Faxa: 943 71 44 21 • ESKORIATZA

URRESTILLA TABERNA

Hidalga 2 ESKORIATZA 943 71 48 09

Gure etxera datorrena, bere etxean dago.



ilusiorako mila eta zazpi arrasoi

kuadrilen giruek igerri daixela

herri txiki hontan jaixetan gazela



eskoriatzako
udala